



BANDOA / BANDO



2020ko irailaren 4a iritsi da, urteko unerik garrantzitsuenetako bat hiritarrentzat, bai hondarribiarrentzat, baita gure herriko egutegiko jaiegun horiek gu bisitatzeko eta gurekin gozatzeko baliatzen dituztenentzat ere.

Baina aurtengoa ez da urte normala, COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-egoerak gure bizitzak baldintzatzen jarraitzen du arlo guztietan, eta, ondorioz, datozen egunetako jai-aurreikuspenari ere eragin dio.

Beraz, ahalik eta indar handiena jarriz gogora ekarri eta errepikatu behar dudan lehenengo gauza da aurten, zoritxarrez, ez direla jende asko biltzen dituzten ohiko jai-ekitaldiak egingo.

Ezin dut ahaztu beste herri batzuetako, hurbileko eta urrutiko, jai nagusietan gertatutakoa. Horregatik, Bando honetan honako hau adierazi nahi dut argi eta garbi:

1. Aurten ez ditugu herriko jaiak izango, elkarrekin COVID-19ren pandemiari aurre egin nahi diogulako eta aurre egin behar diogulako. Ezin diogu birusari zabaltzeko aukerarik txikiena ere eman. Elkartasuna adierazi behar diegu beren lanbideetan birusaren aurka egunero borrokatzen ari diren pertsona guztiei, eta, horretarako, eraginkor izan behar dugu, jokabide indibidual eta kolektibo oso arduratsuarekin.

2. Dei egiten diet hondarribiar eta kanpotar guztiei, osasun-, higiene- eta prebentzio-neurriak betetzeko, eta gure plaza eta kaleetan arduraz, errespetuz eta zuhurtziaz jokatzeko, eta ez antolatzeke, ez parte hartzeke, eta, ahal dela, informalki deitutako edo berez sortutako pilaketak saihesteko.

4 de septiembre de 2.020, ha llegado uno de los momentos más importantes del año para la ciudadanía, tanto hondarribiarra como foránea, que aprovecha estos días festivos de nuestro calendario local para visitarnos y disfrutarlos junto a nosotras y nosotros.

Pero este año no es normal, la situación sanitaria producida por la pandemia del COVID-19 sigue condicionando nuestras vidas en todas sus facetas, y en consecuencia también afecta a la previsión festiva de los próximos días.

Por tanto, lo primero que debo recordar y reiterar, poniendo en ello el mayor énfasis posible, es que este año, por desgracia no se van a desarrollar los habituales actos festivos, en los que siempre se ha producido una importante afluencia de gente que ha disfrutado de su desarrollo.

No puedo abstraerme de lo acontecido en las fechas correspondientes a la celebración de las fiestas patronales de otras localidades, próximas y lejanas, por ello quiero en este Bando dejar expresa y clara constancia de lo siguiente:

1. Este año no tendremos nuestras fiestas patronales, porque queremos y debemos afrontar comunitariamente la pandemia del COVID-19. No podemos dar la menor oportunidad a la propagación del virus. Tenemos que mantener nuestra solidaridad con todas las personas que desde sus respectivos sectores profesionales lucha diariamente contra el virus, haciéndola efectiva con una conducta individual y colectiva extremadamente responsable.

2. Hago un llamamiento a toda la ciudadanía, hondarribiarra y foránea para que cumplan con las medidas sanitarias, higiénicas y preventivas, actuando con responsabilidad respeto y prudencia en nuestras plazas y calles, no



3. Eskerrak eman nahi dizkiet urtero jai-ekitaldiak antolatzen dituzten eta aurten ez egitea erabaki duten hiriko elkarteei; izan ere, beren lankidetzaz erakutsi dute, eta prestutasunez eta borondatez parte hartu dute erantzukizun- eta kontzientziazio-mezua emateko, COVID-19a hedatzea saihesteko helburu komunarekin.

4. Azkenik, jakinarazten dut Hondarribiko Udalak behar diren zaintza- eta kontrol-neurri guztiak hartuko dituela Osasun-Agintariak nahitaez xedatutako neurri guztiak betetzeko eta betearazteko. Horrela jokatu da herritarren banakako eta taldeko osasuna arriskuan jartzen duten jokabideak eta ekintzak saihestu, eragotzi eta/edo mozteko.

Espero dut, egun hauek igaro ondoren, horien balantzea aurtengo berezitasunarekin bat etortzea; alegia, lasai eta alai joan izana, baina betiere osasun-segurtasuneko neurrien ondoriozko inguruabar eta baldintzetara egokituta; eta espero dut inolaz ere deitoratu behar ez izana gure Hiriaren izena gizalegearen aurkako ekintzen, arduragabeen eta elkartasunik gabekoen ondoriozko gaixotasun-berragerpen deiturikoen prozesuekin bat egitea.

Hondarribian, 2020ko irailaren 4an

organizando, ni participando, y en todo caso, evitando las aglomeraciones convocadas informalmente o espontáneas.

3. Quiero agradecer a las Asociaciones de la Ciudad que, todos los años, organizan actos festivos, y que este año han decidido abstenerse de hacerlo, su colaboración, habiéndose involucrado de forma decidida y expresa en la emisión de un mensaje de responsabilidad y concienciación con el objetivo común de evitar la propagación del COVID-19.

4. Por último, comunico que desde el Ayuntamiento de Hondarribia se adoptarán todas las medidas de vigilancia y control necesarias para cumplir y hacer cumplir todas las medidas dispuestas con carácter obligatorio por las Autoridades Sanitarias. Así se actuará para evitar, impedir y/o cortar las conductas y actos que, incumpliendo dichas medidas, pongan en riesgo la salud individual y colectiva de la ciudadanía.

Deseo y espero que, pasados estos días, el balance de los mismos sea acorde con la especialidad de este año; que su desarrollo haya sido tranquilo y alegre, aunque siempre adaptado a las circunstancias y condicionantes derivados de las medidas de seguridad sanitaria; y que en ningún caso tengamos que lamentar que el nombre de nuestra Ciudad se una a procesos de los denominados rebrotes de la enfermedad derivados de acciones incívicas, irresponsables e insolidarias.

En Hondarribia, a 4 de septiembre de 2020

ALKATEA

Txomin Sagarzazu Ancisar



HONDARRIBIKO UDALA



HONDARRIBIKO UDALA